

EUJENIO AGIRRETXE AZPILLAGA
Euskal sermolaria eta Euskararen predikaria
(1920-2005)

I. BIZITZA ETA LANAK

1920 azaroaren 15ean jaio zen Eujenio Agirretxe Azpillaga, Errezilgo Otegitxo baserrian. –«Otetxo» deitzen zioten ikasle-lagunek gaztetan–. Bederatzi urte zituela galdu zuen ama –amaren heriotza gogoratuz hasten du bere *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan* liburu «autobiografikoa» (1). Guztiz lagungarria dugu liburu hori Eujenioen biografia, haren lanak eta pentsaera ezagutzeko–. Aita 1943ko udaberrian galdu zuen:

Euskara besterik ez zekien, jakina, mutiko errezildarrak familiarik eta lagunartetik; baina euskararekiko esperientzia gogorra bizi behar izan zuen mutikotatik bertatik eskolan, Primo de Riveraren diktaduraren pean:

Euskara hitz egiteagatik, ni neu eskolan –baskaltzera erten gabe– itxita behin baino gehiagotan egona nauk

zioen 1970ean *Jakin*-ek Salvatore Mitxeleneri buruz argitaraturiko liburuan (2) –Salvatore 1965eko abenduan hila zen–.

Errepresioaren pean ametsak lantzen

Hamaika urte betetzear zituela –Errepublikaren garaia zen ordurako– joan zen Arantzazura fraidegai (hiru urte) eta gero Forura (bi urte). Eta erabateko barnetegian bizi arren, kanpoko mugimendu politiko eta kulturalen berri iristen zitzairen nonbait, eta hortxe euskaltzaletu eta abertzaletu omen zen 13-14 urteak orduko, berak aitortzen digunez (3).

1936an, 16 urteak bete gabe artean, jantzi zuen fraide-habitua Zarautzen, nobizio-urtea egiteko –bide batez esan dezagun, Otegitxo baserri hartatik beste hiru anaia erlijioso ere izan zirela: frantziskotarra bata, gero apaiz diozesiar bihurtua, pasiotarra bestea, jesuita hirugarrena–. Espainiako gerra zibila bizi-bizirik zegoen Euskal Herrian Eujeniok nobizio-urtea hasi zuenean; errepresio-ondorioak indarrean jartzen hasita zeu-

(1) EFA, Arantzazu-Oñati, 1995.

(2) «Mitxelenerekin pentsaketan», in: *Salvatore Mitxelena*, «Jakin sorta»-2, 1970, 121. or.

(3) Ik. ibid., 121-122. orr.

den ordurako, eta beldurra zen nagusi euskarazko edozein agerpideren inguruan; baita komentu barruan ere. Berak aitortzen digunez:

Ordurako banituen nik euskarazko liburu batzuk. Kendu eta erre egin zizkidaten komentu ilun hartan (4).

1937an Erriberrira aldatu zen, Humanitateetako ikasketak amaitzeko eta Filoso-fiakoak egiteko (hiru urte); ikasteko giro eskasa izan zuten, ordea, gerra-urte haietan. Berak ez zuen gerra-frontera joan beharrik izan; baina gerrako bestelako zerbitzutan jardun behar izan zuen berak ere:

Nola edo hala, batzuk fusilarekin gudatzen, besteok hemengo lan bigunagoetan, hor pasa genetxezkin gerrako urteak xeblebre asko. Ez praile, ez soldadu, ez ikasi, ez jator jo-lastu, ez bide argirik arkitzen... (5).

Kanpoko eta barruko beldur giro nahasi hartan, ikaslagun batzuk taldean elkartu ziren, eta

Isilik baina biziki euskal suari –gure fedearekin batera– gure bihotzetan beti eutsiko geniola hitz eman genion elkarri,

dio aipaturiko bere «autobiografian» (6).

Arantzazuko Teologiako ikasketa-urteak ziren (1940-1944). *Bai* zuen izena ikasleen taldeak; gerora hain ezagunak gertatzen zaizkigun fraide gazte hauek ziren «baidiak» –Agirretxek berak erabili zuen hitz hori garai hartako txosten luze batean–: Luis Villasante, Salbatore Mitxelena, Karmelo Iturria, Eujenio Agirretxe, Jose Antonio Gandarias, eta beste zazpi lagun, Agirretxek berak izenez izen gogoratzen dizkigunak (7). Taldearen helburua ez omen zen negar edo amets egitea bakarrik, eta bai norberaren euskara lantzen eta euskal kulturgintzan saiatzea ere; beren arteko aldizkari bat ere argitaratu zuten, *Izarño*, hasieran, eta gero *Bai* izenekoa hori ere. Talde-lan hartatik ekin zion bakoitzak euskararen eta euskal kulturaren alorrean luzarorako bere lanari: hizkuntzalaritzan eta espiritualitatean batek, poesian eta literaturan besteak, kazetaritzan, irakaskuntzan edo itzulpenetan beste batzuk... Agirretxek berak euskarazko hizlaritzari heldu zion bereziki, Elizako apostolutzaren alorrean. Hizlaritzan izan zituen bere bizitzako arrakasta eta osperik zabalenak.

Gaztelatik Euskal Herrira

Arantzazuko urteak amaitzean (1944ko uda-udazkenean) *Bai* taldekoak sakabatu egin ziren: Villasante, adibidez, Cantabriako Comillas-ko Unibertsitatera joan zen, teologi ikasketak jarraituz; Agirretxe, berriz, Salbatore Mitxelenarekin batera, Burgoiko La Aguilera-ko komentura bidali zuten «Pastoraltzako ikastaroa» egitera. Handik hilabete gutxira honela zioen Villasantek La Aguilera-ko bi adiskideei idatzitako gutunean:

(4) *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, EFA, Arantzazu-Oñati, 1995, 34. or.

(5) «Mitxelenarekin pentsaketan», a. a., 123. or.

(6) *Aldi hartan...*, a. 1., 35. or.

(7) Ik. *Aldi hartan...*, a. 1., 40. or.

Bazenekite nolako biotzmiña, nolako utsunea sentitzen dedan, nere lagun maiteengandik aldenuta, ain ambiente ezberdifean, batez ere gure artean erabilli ditugun lanak eta ametsak gogoratzen ditudan bakoitzean...

Villasantek berak «Otetxori» –Agirretxeri– zuzenduriko beste gutun batean honela zioen hurrengo urtean (1945 epaillaren 18an)...

Ta gure lengo euskal-asmo aiek? Ni lengo berbera nazute, beti bezela nago ni biotzean sua ta garra, lan egiteko prest. Orain jakina, Arantzazuko lanetarako betarik ez, orain teologia ikasi ta geroko gauzak kolokoratu-bearra, baña biarko egunean dana ondo etorriko zaidalako asmoz.

Gaztelan hasi zituen Agirretxek herrietako bere sermoi-lanak; han emandako urtean irakurri omen zituen Santa Teresa Avilakoaren obrak ere. Eta urte hura amaitu bezain laster (1945eko udan) Zarautzera hasieran eta udazkenean Arantzazura bidali zuten. Handik aurrera bizitza eta lan ia osoa Euskal Herrian eman zituen: Zazpi urte Arantzazun (1945-52) eta gero berriro Zarautzen (1952-1958); ondoren Bilbon (1958-1959), Tolosan (1962-1963), berriro Arantzazun (1963-1966), Durangon (1966-1969), berriro Bilbon (1969-1977) eta Errenterian (1977-1992) eman zituen bere urte sasoi-koenak. Zahartzaroan sartuta, Zarautzen jardun zen, gogotsu eta ekintsu artean (1992-2004); urte horretan, gaixo eta ezindurik, Bermeoko fraideen komentu-eritexera eraman zuten, 1995eko uztailaren 7an bertan hil zen arte.

Misiolari eta predikaria

Gaztelatik Euskal Herrira itzulita, hamabost bat urtez (1945-1959) ozen entzun zuten Agirretxe predikariaren ahotsa euskal herrietan: Hondarribia, Zegama, Hernani, Donostia, Arbizu, Ezkurra, Aramaio, Gernika, Plentzia, Gernika, Barakaldo, Gasteiz, Bilbo, Erandio, etab. etab. Herri-misioak, gogo-jardunak, bederatziruarenak, Ostiral santuko Zazpi Hitzak, Arantzazuko gazteen gau-igoerak, santuen panegirikoak, sermoiak: horietan eta bestelakoetan jardun zuen sutsu eta ekintsu. Urte horietan batez ere oso ezagunak egin ziren Euskal Herriko bazterretan Agirretxe predikari gartsu eta zorrotzaren irudi lerdena eta ahots ozena. –Espainia aldean ere jardun zuen herri-misioak ematen: Cartajena, Sevilla eta Ecija-n. (1957)–.

Egunean eguneko predikaria zen Agirretxe, egunkari eta aldizkari berrienetako munduko albiste hunkigarrietatik abiatu zalea, entzuleak erne jartzeko asmoz; eta hurbileko predikari sarkorra zen, hitzaren berotasunarekin batera jendearen gertuko adibideak, konparazioak eta metafora konkretuak erabiltzen zekiena. Hurbilekoa gertatzen zen, nahiz elizako goiko pultiputik (jaietako sermoiak edota bederatziruarenak), nahiz udaletxeko balkoitik (herri-misioak eta), nahiz bideko furgonetatik (gazteen Arantzazuko gau-igoeretan, adibidez) mintzatu, inguruan bildutako entzuleei; jendearen tartean sentitzen zuen bere burua, eta tartean sentitze horrek inspiratzen eta berotzen zuen bera.

Jakina, garai hartan ez zen trabarik falta izan gure predikari profetikoaren hitzarentzat. Gaztelatik lehen aldikoz Zarautzera iritsi orduko, honako aholku hau eman omen zion bertako nagusiak, apostolutza sukarrez sututa zetorren fraide gazteari:

Kontuz, gero, politikan etzaitzela sar!

Eta bere aldetik gaineratzen du berak:

Gero ere askotan errepikatu zidaten kontseilu edo agindu hori, batez ere, publikoki hitz egin behar nuen egunetan (...). Ze ote zen, bada, politikan sartzea edota ez sartzea? Makina bat buruhauste ekarri izan digun galdera eta arazoa izan da horixe (8).

Gaínean ezarritako «ezpata» mehatxuzko horrek etengabe jarraituko zion, bada, Frankismoaren garaian gure predikari ausartari. Behin baino gehiagotan, nonbaiteko salaketak edota presioak tarteko, apezpikuaren zentsurarik eta gutun mehatxuzkorik ere hartu izan zuen, berak egindako sermoiren bat zela eta. Berarekin batera Salvatore Mitxelenak ere bai; biok Eibarren emandako misioaren ondoren (1953) izan zen, hain zuzen ere, horietako bat; predikatzeo baimena kendu zion ondorioz apezpikuak Mitxelenari (9). Agirretxeri ez zitzaion orduan zuzeneko debekurik etorri, baina mehatxupearan jarraitzen zuen. Dena dela, bere aldetik ez zuen sekula bere hitza isilpetu, hitza zuelako bere apostolutzako lanabes nagusia, hitzaren indarrean zeukalako bere indarra.

Mitxelenarekin, hain zuzen, joan zen Agirretxe, Euskal Herritik urrun 1954an: Kubara, bertan herri-misioak ematera. Salvatore Ameriketara geratu zen zortzi urtez; baina Eujenio Euskal Herrira itzuli zen, ia urte erdi Kuban eman ondoren.

Aire eta bide berrien bila

Eliz apostolutzarako eta predikaziorako aire eta bide berrien bila zebilen, ordea, Agirretxe. Horretarako aukera aurkitu zuen «Mundu Hobearen aldeko Mugimendua» izeneko Eliza barruko ekintza apostolikoan. Hiru urtez (1959-1962) gehienbat Euskal Herritik kanpo –Italian eta Espainian– jardun zen mugimendu horren baitan «Esercizioni per un mondo migliore» zelakoan, apostolutzarako jardunaldi apartekoak, laiko nahiz apaiz kezkatuei zuzenduak, ematen eta zuzentzen. Mugimendua Segoviako La Granja herrian zuen etxe nagusiaren zuzendaria ere izan zen aldi batez. «Ejerzizio» apostoliko horiek San Ignazioaren «Ejerzizio» espiritual klasikoaren aldean bestelako gaiak zerabiltzaten eta bestelako helburuak bilatzen zituzten; eta horietako hitzaldi-estilo teologikoa herri-misioetako estilo moralista eta apokaliptikotik oso urrun zegoen, entzuleak ere oso bestelakoak izan ohi ziren eta.

Hiru urteko esperientzia hori amaituta, berriro Euskal Herrian dugu Eujenio; Vatikanoko II. Kontzilioa hasia zen, horrek Elizarentzat eta nolabait gizarteari begira ere ekarri zituen berrikuntza eta molde berriak eta guzti (10). Gure arteko giro ideologiko

(8) *Aldi hartan...*, a. I., 53-54. or.

(9) Urtebete lehenago, Agirretxek ere hartua zuen apezpikuaren aldetik baimena kenduko zion mehatxu zorrotza, Zumaiako gazteei emandako gogo-jardunak zirela eta. «Dijo entre otras cosas que si los obreros no recibían jornal suficiente, podían cruzarse de brazos durante un par de horas en su trabajo, en señal de protesta», zioen apezpikuak Arantzazuko goardiano Pedro Arangurenari idatzitako gutunean. Eta gaineratu zuen: «... Esto además de sus acostumbradas soflamas en materia social con ribetes políticos, impropios del púlpito, desde donde debe predicarse exclusivamente la palabra de Dios y siempre con lenguaje prudente y decoroso» (Arantzazuko Komentuko Artxiboa, Arm. 5, Carp. 46, Dos. 1).

(10) «Eta Kontzilioa hasi eta aurrera zihoalarik, ni Euskal Herrira itzuli nintzen betirako», gaineratzen du aipaturiko bere liburu autobiografikoan (*Aldi hartan...*, a. I., 40. or.).

eta politiko itxi eta itogarri hura gainditu nahian edo, Frantziako eta Europako pentsamendu eta mugimendu filosofiko-teologiko eta sozial irekiagoez jabetzen saiatu zen Agirretxe urte haietan. Adi egon ohi zen Elizan nahiz gizartean ari ziren mugimendu eta korronte moderno eta berritzaileei buruz eta grina handiz saiatu ohi zen horietatik ikasten. Vatikanoko II. Kontzilioaren inguruan Elizan gertaturiko «Aggiornamento» mugimendua bizi izan zuen bereziki itxaropen handiz. «Eliza Amak nire bizi guztian eman didan pozik ederrena eta betegarriena halako batean (1962-X-11) hasi zen Vaticano II.a izeneko Kontzilio hura izan da. Hark bete gintuen itxaropenez eta ilusioz», aitortzen du berak (11). Nik neuk Arantzazun izan nuen Agirretxe Teologiako ikasle gazteon arduradun –«maisu»– urte haietan: 1964-1966. Ilusio haiek guri komunikatzeaz gain, aire berriak sartu zituen fraide gazteon «barnetegi-ko» hezkuntzan ere.



Kontzilioa amaituta (1965) eta Arantzazuko hezitzaile-lanak lagata (1967), metodo eta bide berriei ekiten die gure hizlariak: kristau talde txikien animazioari eta fededun helduen katekesiari. Hitz du beti bere tresna nagusia; baina bestelako entzuleei zuzendua eta bestelako metodoz landua orain. Bide horretatik jorraituko du nagusienik hurrengo hogeitabost urteetan: aurrenik Bilbon eta Bizkaian eta gero Errenterian eta Gipuzkoan.

Hiru fase –agian fase jakin baino gehiago hiru metodo eta estilo– bereiz ginitzake, beraz, bere hitzaren dohainaz eta indarraz baliatzen jakin zuen Agirretxe hizlariaren apostolutza-ildoan:

- a) Jendolde handien aurreko sermoiak (herri-misioak, Arantzazuko gazteen igorak, eliza edota plaza beteko hitzaldiak) (12);
- b) Talde espezifiko eta aukerakoentzako zenbait egunetako berrikuntza-jardunaldiak (aipaturiko «Mundu Hoberako Esercitazioni» edo «Ejercitaciones» haiek, San Ignazioren Gogo-jardunak, etab.);
- c) Oinarriko kristau elkarte txikien katekesia eta hurbileko animazioa, fede sakonketari begira. Hiru metodo-estiloak erabili zituen, erabili, nolabait bere bi-

(11) *Aldi hartan...*, a. l., 90. or.

(12) Bere egunkarian honako hau aitortzen digu 1982an:

Zarautzen jarraitzen dut; gaur igandea. Hemengo meza-elizkizunak jende askorekin. Horrelako jendetzaren aurrean hizlari izateko gogoia berritzen zait beti. Eta hori egin ezinak sufritu egin arazten dit.

zitza osoan, baina herri-misio jendetsuak nabarmendu ziren lehen fasean (Kontzilioaren aurretik); Mundu Hoberako elite-jardunaldiak nagusitu ziren bigarren fasean; talde eta elkarte txikien katekesian saiatu zen nagusienik hirugarren fasean, Kontzilioaren ondoren.

Azken batez, jendaurreko hizlaritzan ezezik, irрати bidez ere landu zuen Agirretzek hitzaren dohaina: «Egiaundiren hizketak» (1958 inguruan), elkarrizketa gisa eratuak dira horietako batzuk –horietakoen 13 gidoi, berak prestatuak, artxioban aurki ditzakegu–.

Sustatzaile eta antolatzailea

Bide berrien bilatzaile bezala antolamendu berrien sustatzaile eta eratzaile ere bazen etengabeko ekimenak eragindako Eujenio Agirretxe hura. Bide berriak urratuko zituzten antolamenduak eratzea zen, hain zuzen, kontua. Euskal Herriaren eta euskal fededunen zerbitzu egokiagoa bilatu zuen gehienetan horien bidez, eta euskararen erabilera izan zuen horrelakoetan kezka nagusietako bat.

Kristau apostolutzari guztiz emandako frantziskotarra zen aldetik, Frantziskotar Hirugarren Ordenari (edo Frantziskotar Ordena Sekularrari) atxekia jardun zuen bere apaiz bizitza osoan; apaiz gazte-gaztea zenetik eta gaixorik Zarauztik Bermeora erretiratu zen arte, ia etenik gabe eduki zuen bera bizi zen herriaren eremuko, edo inguru zabalago-ko eskualde edo herrialdearen barrutiko edota Frantziskotar Probinziaren lurralde oso-ko Hirugarrendarren ardura espirituala; bederatzi urtez bete zuen azken maila goren honetako kargua (1952-1958 eta 1966-1969). Tradizio handikoa eta nolabait astuna zen Hirugarrendarren Ordena; saiatu zen bera behin eta berriro horren barruan bide berriak irekitzen. Eta euskaldunentzako euskarazko zerbitzua eskaintzen era berean: horren buletinean euskarazko artikulua idatziz (eta geroago euskarazko buletin berezia, *Anaitasuna*, sortuz), Ordenaren Erregelak eta bestelako materialak euskaratuz, etab.

Aipaturiko sormen eta antolakuntza-grinaren eta bere barru-barruko beste kezka nagusietarikoen adierazgarri eta lekukoa da bereziki 1960an eratu zuen *Arantzazuko Amaren Misiolariak* (ARAMI) elkarte, Euskal Herriko neska euskaldunei zabaldua, eta bakoitza bere lekuan eta bere lanbidean bizi izateko moduan antolatua. Beraien kristau heziketarekin eta fedeko bizitza sakontzearekin batera, Euskararen eta Euskal Herriaren alde lan egitea zen «Aramitarren» helburua, Eliza barruan nahiz gizartean. Elkartearen oinarrietako bat, kideek beren arteko bizitza eta apostolutzak-lana, eta ahal zuten neurrian beren lan profesionala ere, euskaraz egitea zen (13). Agirretxe bera izan zen elkartearen gidari eta sustatzaile espirituala, hil arte. Horrela erantzun nahi izan zion berak minetz eta saminez bizi zuen kezketako bati: nola gure baserri eta herrieta-rik mojarara sartzen ziren neska euskaldun-euskaldunek euskara baztertu behar izaten zuten komentuko ateetatik barrura sartu orduko (14).

Ez dakit jatorriz beraren ideia izan zen Euskal Erlijiosoen Loiolako Batzarrena; baina bera izan zen horien sustatzaile eta antolatzaile nagusietakoa. Izan ere, 1972-1979 tarteko urteetan urtero beren batzar zabal eta irekia egin zuten Euskal Herriko

(13) Ik. *Aldi hartan...*, a. l., 161-165. orr.

(14) ARAMIr buruz, ik. *Aldi hartan...*, a. l., 161-165. orr.

hainbat Kongregaziotako erlijiosoek, dena euskaraz, jakina, Euskal Herriarentzako beraien zerbitzuak nolakoa izan behar zuen aztertzeko. Horien helburuetako bat honako hauxe zen: euskararen eta euskal kulturaren egoera eta balioa erlijiosoak hobeto ezagutzea, horiei buruzko beren erantzukizunaz jabetzea eta beren misioaren barruan eta lanean horiek aintzat hartu eta praktikatzeari. Batzar horiek aski eraginkorrak izan ziren, besteak beste, Erlijioso Institutuen euskararekiko jokabideak aldatzeko, irakaskuntzan, liturgian, apostolutzan nahiz barruko bizitzan (15).

Batzar horien ondorio izan ziren urte haietan antolaturiko euskal Erlijiosoen jardunaldi edo kongresuak ere, Oñatin eta Donostian ospatuak. Horien asmatzaile eta sustatzaile nagusien artean ere beti zegoen Eujenio Agirretxe.

Era berean, kezkatuta zegoen apaizek urtero egin ohi zituzten gogo-jardunak euskaraz egiteko aukerarik ez zegoelako; beraren eraginez seguruenik, apaiz eta erlijiosoren batzuk elkartu ziren, beren aldetik euskarazko gogo-jardun bereziak antolatzeko, eta hainbat urtetan antolatu zituzten horrelakoak. Beti zegoen Eujenio Agirretxe antolatzaileen artean.

Kazetari eta idazlea

Elizako predikari, hizlari, antolatzaile eta sustatzaile izateaz gain, euskal kazetari eta idazle izan zen aldetik aipatu behar dugu Agirretxeren lana; haren Eliz apostolutzari eta militantziari begira edo horren ildotik eta zerbitzura eman zuen gehienbat haren idazle-lana; eta hainbat arazo sozialekin batera, teologiako, etikako eta espiritualitateko gaiak landu zituen nagusiki bere idatzietan.

Agirretxeren euskarazko idatzizko kazetaritza erlijiozkoa neurri batez Frantziskotar Hirugarrendarrei lotuta dago. Bazen garai hartan *Irugarrengeoen Irakaslea/El Maestro de los Tercarios* hilebetekari elebiduna (1944-1949), Gerra zibilaren aurreko *Hirugarrengeoen irakaslea* izenekoaren jarraitzailea, eta 1950etik aurrera bitan banatu zena: *Anaitasuna* (euskaraz) eta *Franciscanismo* (gaztelaniaz) –*Anaitasuna* hori gipuzkerazkoa zen; geroago sortu zen *Anaitasuna* bizkaierazkoa–; *Irugarrengeoen Irakaslea*-n aurrenik eta *Anaitasuna*-n ondoren ia hilerok bere idazlana argitaratu izan zuen Agirretxek euskaraz hamabost urtez (1944-1959).

Hurrengo urtean (1960an) sortu zuen Jose Antonio Garatek *Goiz-Argi* aldizkaria; horko lankide saiatua ere izan zen Agirretxe urte askotan; eta 1962-1963 urteetan aldizkariaren zuzendaritza izan zuen gainera bere esku. Aldizkari honetako hainbat artikulua (1965-1975 bitartekoak) daude bilduta *Baserriko leihotik* liburuan. *Aránzazu* aldizkarian ere hainbat lankidetzak eman zuen –aldizkari horren zuzendari ere izan zen denboraldi batean–. Aipatzekoak dira, era berean, egunkarietan Agirretxek argitaraturiko lankidetzak: *Diario Vasco*, *Deia*, etab.tan.

(15) Batzar horiei buruz ere Agirretxe bera mintzatu zitzaigun luze samar aipatua dugun liburuan: *Aldi hartan...*, a. 1., 168-171. orr. Bere Egunkarian «birjaiotze» esperientzia modukotzat hartzen zuen Agirretxek beretzat Loiolako Batzar horietakoa, Mundu Hoberako Mugimenduan bizi izandakoa hartzen zuen bezala, edota Vatikanoko II. Kontzilioaren garaikoa.

Espainiako Gerra zibilaren ondoren Hego Euskal Herrian argitaraturiko liburuetan, eta Kristau Dotrina kenduta, aurrenetarikoa izan zen Agirretzek argitara eman zuen liburusk: *Arantzazuko Ama Birjiñaren bederatz-urrena* (1946) (16). Hurrengo hamarraldian eman zituen argitara beste bi liburu, deboziozkoak horiek ere: *Umetxoen otoi-tzak* (berak sinaturiko sarrerarekin) (17) eta *Arantzazu'ra erromes* (18).

Bestelakoak dira geroago argitaratu zituen bi liburuak: maiz aipatu dugun *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan* liburu autobiografikoa (19) eta *Baserriko leihotik. Aldi hartako kezak eta gogoetak. 1965-1975* (20).

«Eujenio Agirretxe» sinaduraz gain honako ezizen hauek erabili zituen bere katezaritzako lanetan: «Otetxo», «Anaia», «Egiaundi», «Atarre», «Zubigile».

Argitaragabeko beste zenbait liburu edo liburugai utzi du Agirretzek, beti euskaraz idatzita, burututa nahiz burutu gabe. Espiritualitate alorreko gaiak darabiltza gehienbat horietan.

Aipatzekoak dira Agirretxeren euskarazko itzulpen-lanak ere. Autorearen izenik ez baldin badarama ere, seguruenik berak itzulia da *Frantziskotar Ordena Sekularraren Bizi-bidea* (Arantzazu, 1979), Paulo VI. Aita santuak onartua (1978); *Asisko Frantzisko. Asisko Klara* liburu mardularen itzultzaileen artean ageri da bera (21). Argitaratu gabe geratu ziren berak gaztelaniatik itzuli eta moldaturiko *Kristau bizitza berritzen* tituluko helduen katekesi-gaiak; eta argitaratzeko guztiz prestatuta utzi zuen berak oso gogoko zuen eta aspalditik itzulia zeukan liburu hau: Jacques Loew-en *Dans la nuit j'ai cherché – Gaeuz Bila* (22).

Dena dela, Agirretzek idatzita utzitako euskarazko materialik interesgarrientarikoak seguruenik haren sermoiak eta hitzaldiak dira. Hainbat karpitetan ordenatuta aurki daitezke horiek, berak hala lagata. Material horren guztiaren azterketa sakonagoa egitea bidezkoa litzateke, zalantzarik gabe: Eujenio Agirretxeren oratoriaren estiloaren aldetik, batetik, eta garai hartako Eliza predikuetako gaien aldetik, bestetik.

II. EUSKARARI BURUZKO PENTSAERA

Espereintzia latzak bizitako gizona da Agirretxe, euskara zela eta. Mutikotan eskolan bere zigorrak izan omen zituen euskaraz mintzatzeagatik, gorago aipatua dugunez; Arantzazuko kolegioan bertan halako zigorrik ez, baina erdara nagusi: «... erdara hutsezko mila errezo», dio berak (23). Eta hala ere, hamahiru bat urtetarako euskara

(16) EFA, Arantzazu, 1946.

(17) AS CEA, Bilbo, 1950.

(18) Itxaropena, Zarautz, 1956, 46. or.

(19) EFA, Oñati, 1995, 198. or.

(20) EFA, Oñati, 1998, 253. or. (*Goiz Argi* aldizkariko hamar urtetako artikuluen antologia da).

(21) Arantzazu E.F., 20021, 288. or.

(22) Orain dela hogeit urte (1985an) liburu hori laster argitaratuko zioten itxaropena ageritu zuen Agirretzek. Hori ikusi gabe hil zen.

(23) *Aldi hartan...*, a. l., 27. or.

maitatzen ikasia omen zuen, eta gero eta gehiago maitatu ere –horrelako esperientzien ondorioz, bestelakorik ere gertatu ohi den arren: hau da, norberaren hizkuntza gorrotatzera aldatzea–. Urte gogorak jasan behar izan zituzten komentuan bertan Espainiako Gerra zibilaren ondoko urteetan: etxe barruko susmo txarreko (24) eta debekuzko (25) giroa euskara eta euskal kulturari buruz, euskal liburuak bahitu eta erretzea, gorago ere aipatu dugunez (26), euskaraz mintzatzeko debekua Erromatik bidalita zetorren Bisitari Jeneralaren aldetik (27), etab. Baina euskararen suari eustea lortu zuen berak, eta euskalgintzan saiatu zen, Euskal Herriaren zerbitzura, bere apaiz-lanaren eta apostolutzaren ildotik.

Euskaltzale eta Euskaltzaina

Bere aldetik saiatu zen Eujenio, saiatu, euskara lantzen, bere apaiz-lanetarako obligazio larritzat hartuz hori. Horretarako sortu zuten gorago aipatu dugun BAI taldea eta aldizkaritxo Arantzazuko Teologiako zenbait ikaslek, Agirretxe tarteko: Elkarri lagunduz, beren euskara lantzeko eta hitzez nahiz idatziz hori praktikatzeko asmoarekin. Izan ere, bestela oso murriztuta eta atzenduta geratzen baitziren fraide apaiz-gaiak beren apaiz-lanetan euskaraz jarduteko, apaizgintzarako orduko ikasketetan lekurik ez zeukalako euskarak. Teologiako ikasle zeneko urte haietakoa da seguruenik oraindik ere Agirretxeren artxiboan aurkitu ahal dugun koaderno, non euskal atzizkien zerrenda osoa baitzeukan bertan eskuz kopiatuta, Sebero Altuberen liburutik hartuta. 1978an, 58 urte zituela, atera zuen Agirretxek Euskaltzaindiaren «Euskara D titulua». Eta zazpi bat urtez euskara-irakasle izan zen Errenteriako Tolareberriko eskola publikoan. 1986an utzi zuen lan hori.

Euskararen bizitzaren eta erabileraren alde ahalegindu zen Eujenio Agirretxe: gizar-tean, Eliz elkartean eta erlijiosoen bizitzan. Euskal jendeen duintasunak eskatzen zuen, beraren iritziz, euskararen erabilera duina, Elizaren eta predikarien aldetik bereziki. Horren adierazgarri da, 1953an Salvatore Mitxelenarekin batera Eibarren euskaraz eman zuen herri-misioa, nahiz eta bi hilabete lehenago erdaraz emana zuten besteren batzuk (28). Era berean, horren adierazgarri da 1964an Hernaniko herri-misioan gertaturikoa, Agirretxek berak kontatua duenez. Bi misio eman zituztenaldi berean, Agirretxe tarteko: erdaldunentzat, batetik, eta euskaldunentzat bestetik. Erdaldunentza-

(24) «Euskara bera eta euskal kutsua zedukan guztia gaiztotzat jota zegoen» (ibid. 39. or.).

(25) «... fraide bizitzari jarrai nahi bagenion, abertzale eta euskarazale izaterari uko egin behar geniola behin eta berriz esango zitzaigun. Esan eta egin: nire laguna kanpora bota zuten» (ibid. 34. or.)

(26) Gorago aipatu dugu nola erre zizkieten bere euskarazko liburuak komentuan; berari eta beste lagunen bati ere, gaineratzen duenez (ibid., 34. or.).

(27) 1943an gertatu zen hori. Francisco Aldegunde Bisitari Jeneralak hala aginduta:

«... legearen eta heziketa onaren aurkakoa zelako, eta, beraz, zigortzekoa, euskaraz hitz egitea, batez ere errekreio-gelan eta pasiloetan (eguneroko komentutik kanporako solas-ateraldietan, alegia)...», zioen bere aginduan.

(28) Eibarko Misio horien ondorioz kendu zion Donostiako gotzainak predikatzeko baime-na Mitxelenari. Misiolarien aurkako salaketa ipini zuenaku modu ironikoan aipatzen zuen euskarazko misioak antolatuta izana bera, horien premia zalantzan ipiniz, admirazio-zeinuaren bidez: «...las cuales han sido organizadas para completar(!) las que en castellano tuvieron lugar con éxito impresionante el pasado Enero». (Arantzazuko Komentuko Artxiboa, VI. lib., 121. dok.).

ko iluntzeko ekitaldi nagusia parrokian jarri zuten; eta aldi berean euskaldunak «Zintzotasuna» izeneko zinemaren areto estu eta eskasean bildu behar zuten berentzako hitzaldia entzutea. Euskaldunen protesten ondoren lortu zuten iluntzeko ekitaldia ere elizan jartzea euskaldunentzat; Agirretxek euskaldunen eta parrokoaren bitartekoarena egin zuen orduan (29).

Gorago aipatu ditugun Euskal Herriko erlijiosoen Loiolako Batzarren asma-tzaile eta antolatzaileetan nagusienetakoa izan zen bera. Era berean, Frantziskotar Probintziaren 1979ko Kapitulu (batzar) probintzialerako fraideak euskalduntzeari buruz landutako azterketa eta txostenaren egileetako bat Agirretxe bera izan zen. Beste horrelako hainbat ekimen eta partaidetza aurkitu ahal izango genuke haren bitzitan.

Euskararen inguruko biltzar eta jardunalditan parte hartu zalea zen gainera Agirretxe. 1956an, Zarautzen bizi zelarik, Euskaltzaindiak Arantzazun antolaturiko Euskaltzaleen Biltzarrean partaidetza bizia izan zuen, hark hitzaldirik eduki ez bazuen ere. 1963ko Euskaltzaleen Biltzarrean, ostera, hitzaldia aurkeztu zuen: «Gaurko izlariak eta euskera» (30); baina bileretan ez zuen parte hartzerik izan nonbait, eta Luis Villasantek irakurri zuen hark idatzia: (31).

Horiek denak kontuan izanik, uste izatez, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1959an; 1998an, berriz, ohorezko euskaltzain egin zuen.

Euskarari buruzko bere pentsamendua zenbait artikulutan ezezik, hitzalditan (batzuetan argitaratu gabekotan) agertu izan zuen Agirretxek; horien artean bereziki aipatzekoak dira, 1963an Euskaltzaleen Biltzarrean emandakoarekin batera, Frantziskotarrekin 1960an Arantzazun antolaturiko «Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera» izeneko jardunaldietan emandakoa —«Los medios industrializados y el euskera» (32)— eta Euskal Herriko Ordena Erlijiosoetako Nagusi Probintzialen II. Biltzarrean, Loiolan, irakurritakoa: «La lengua y la cultura vasca en la vida de comunidad religiosa» (1974) (33). Hitzaldiokin batera, ordea, behin baino gehiagotan aipatua dugun autobiografia gisako *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan* liburua dugu, beraren euskarari eta euskal kulturari buruzko pentsaera ezagutzeko iturririk nagusia (34), non behin eta berririo azaltzen baitu euskararen aurkako erasoengatik bizi izandako min eta saminen konturik, eta euskararen eta euskal kulturaren zapalkuntzaren aurkako protesten berri ematen; bai eta apostolutzan eta fraideen anaiartean euskara erabiltzeko bere arrazoibideak agertu ere.

(29) Eta Agirretxek bere aldetik gaineratzen du: «Eta handik aurrera eliz nagusia gainezkatzeraino bete, ongi bete ere, egiten zuten Hernaniko euskaldunek, bai arratsaldez eta bai ilunabareko ordutan. Eta, horrela, bai Jaun Erretoreak eta bai kristau herri hark pozik jarraitu zioten misioaldi luze hari» (*Aldi hartan...*, a. 1., 129. or.).

(30) 1956ko Biltzarrean Jose Mari Lojendiok antzeko gaiari buruz eman zuen bere hitzaldia: «Kristau ikasbidea eta Eliz-hitzaldiak». Eta ondoren Agirretxek hitza hartu zuen, hizlariaren salaketa berresteko, eta Donostian (eta bestelako hiriburuetako elizetan) predikatu euskaraz eta ordu egokietan antola zitazten eskatzeko, eta horretarako bere burua ere eskainiz.

(31) Ik. *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 443-449. orr.

(32) *Cantabria Franciscana*, 57-58-59 zenb., 1961, 294-295. orr.

(33) Testu daktilografiatua (1974ko ekaina), 9. or. Inon argitaratu gabe dago nonbait.

(34) EFA, Oñati, 1995.

Euskara eta euskal kultura: Elizaren eta agintari publikoen erantzukizuna

Agirretzek ez zuten hizkuntz antropologiako edo hizkuntzalaritzako teoria berezirik asmatu, baina analisi soziolinguistiko interesgarriak eskaini izan zigun (35). Euskarari buruzko bere iritziak ematean bere bizitzako eta laneko esperientzia eta horien inguruko gogoeta kritikoa eskaini izan zigun zuzenean, eta hizkuntza praktikara bideratu zituen batez ere bere gogoetak.

Bere bizitzako esperientzia mingarriez harantza, eta arrazoibide antropologiko handitan sartu gabe ere, honako hau zuen argi Agirretzek: Euskal Herriak bere «herritasunaren» eta euskaldunak bere «nortasunaren» ezaugarriak behinena duela euskara (36). Herritasun-nortasun horiek bizirik zaindu eta garatzea, berriz, gizatasunak ezezik kristau fedea eskatzen du, beraren iritzi (37).

Euskararen biziraupenak kezkatu izan zuen barru-barrutik Agirretxe, gainbehera eta galtzar ikusten baitzuen. Horrelako egoera bizi izan duten herriek beren hizkuntza salbatzeko zein bide egin izan duten aztertzea proposatu zuen 1956ko Euskalzaletan Biltzarrean (38), eta geroago 1960ko aipaturiko Frantziskotarren kongresuan, flandera eta txekiera bereziki aipatuz (39). Euskararen biziraupen eta «salbaziorako» iradokizunak eta proposamenak eskaintzera eta eskabideak egitera jo ohi zuten zuzenean haren idazlan eta hitzaldi gehienek.

Euskararen «salbaziorako» bi ardatz edo giltzarri ikusten zituen berak: Botere politikoa (Estatua) eta Eliza (40):

«Todo se podrá salvar en el euskera el día en que la autoridad estatal –sea cual sea– no sólo permita, sino estimule y fuerce a los ciudadanos al cultivo hablado y escrito de nuestra lengua materna» (41).

(35) Ik., adibidez, goraxeago aipaturiko 1960ko Kongresuan emandako hitzaldia.

(36) Eta gure herri honetako jende euskaldunak badu aspalditik nortasun berexi bat. Euskal odoleko izateak ematen dion nortasuna. Eta lurraldeak (itsaso, mendi, ibar hauen ondoan jaio izanak) ematen dion nortasuna. Eta ahoz aho, belaunaldika Aitor zaharren ilunpetatik datorkion pentsakeraz eta irizkeraz jasotako nortasuna. Eta hizkuntza harrigarri eta aparteko batek eman dion nortasuna («Herri bat izan eta Herri bat izan nahi», in: *Baserriko leihotik*, a. l., 113. or.). Euskal Herriko Nagusi probintzialei Loiolan egindako hitzaldian (1974), honela zioen:

Se trata de un Pueblo [Euskal Herria] fácilmente *identificable* por sus profundas características de diversa índole y particularmente por su idioma (l. or.).

(37) «Nortasun horri bizirik eta gero eta mardulago eusten ahalegintzeko agindua eman digu gure giza izamenak, gure Jainkoak, gure kristau izateak eta baita –Kontzilioaren bidez– gure Elizak ere» (*Baserriko leihotik*, 114. or.). Beherago zehazkiago azalduko dugu ideia hori.

(38) Ik. *Euskera*, I, 1956, 283. or.

(39) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 195. or.

(40) Villasantek herritarren gain jartzen zuen bazala funtsean euskararen biziraupenarena eta jarraipenarena, hau da, herritarrek euskara erabiltzean ikusten duelako giltza, Agirretzek erakunde publikoek eta Elizak (bereziki apaizek eta erlijiosoe) duten erantzukizuna nabarmentzen zuen euskararen biziraupenean eta horren garapenean. Horrek ez du esan nahi, Agirretzek herritarrengan jartzen ez zuenik euskararen etorkizuna; baina euskara erabiltzeko baldintza politiko, sozial eta instituzionalen garrantzia nabarmentzen zuen bereziki berak.

(41) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 294. or.

Horretarako funtsezkoa zen euskarari ofizialtasuna aitortzea:

tenga vida y vigencia oficial y cívica (42).

Haren kritikarik gogorrenak Estatu agintariei zihoazkien, jakina, urte luzetan euskararen aurka egindako politikarengatik. Askotan salatu zituen gerra garaiko eta ondoko debeku eta eraso-urte ilunak, euskararen aurkakoak.

Eliz predikazioa euskaraz

Elizaren, apaizen eta mojen jarrera eta jokabideari ikaragarritzko garrantzia ematen zion Agirretzek, euskarak bizirik iraun eta aurrera aterako bazen, batez ere bestelako erakunde publikorik ez zegoenean horren alde, edota horiek kontra zeudenean (43); erretoriko onaren erara, baieztapen borobil honekin ekin zion 1963ko Euskalzaileen Biltzarreko bere hitzaldiari:

Euskeraren bizia elizgizonen eskuetatik zintzilika dagola, esango nuke. Berak nai badute euskera biziko da eta euskeraren eriotza nai baldin badute, euskeraren eriotza gertatu egingo...

Baina berehala leundu zituen bere hitzak:

Geiegi esan det. Egiago da orain esatera noana: elizgizonak asko dezake euskeraren alde; baita ere asko dezakete euskeraren ondamendirako (44).

Euskalduna euskaraz bizi ahal izatea da helburua harentzat; eta horren arabera, fededunak ere bere fedea euskaraz bizi ahal izatea eta erlijiosoak bere erlijioso-bizitza euskaraz egin ahal izatea (45). Hortik abiatuz, sutsuki defenditu zuen euskara erabiltea euskaldunentzako apostolutzan eta predikazioan:

Entzule euskaldunak ez al dira bestelakoak bezin eskubidedun beren dotriña-erakusleentzako aurrean? galdedu zuen 1963an Arantzazuko Euskalzaileen Biltzarreko bere hitzaldi aipatuan (46).

Hortik abiatuta, benetako plana proposatu zuen Agirretzek Elizan euskarazko predikazioa indartzeko. Edozein plangintzak eskatzen duen erara, ostera, egoera aztertu eta kritikatzetik abiatu zen: Eliz hizlari euskaldunen urritasuna; horien trebetasunik eza euskaraz jarduteko, sarritan bakoitzaren axolagabekeriagatik; hizlari euskaldunen trakeskeria beren hitzaldietan (47).

Funtsezkoena zen, beraz, elizgizonak gai horretan zuten erantzukizunaz jabetzea. Horretarako Bibliatik eta Eliz dokumentuetatik jasotako argumentu-mordoa ekarri zuen: arrazoi teologikoak eta etikoak. Gainera bi objezio hauei erantzuten saiatu zen:

(42) Ibid., 294. or.

(43) Duela 25 urte edo gehiagoko Elizaz ari gara, jakina, orduan Euskal Herrian Elizak zuen indar sozial eta moralaz, eta baita eragin kulturalaz ere.

(44) «Gaurko izlariak eta euskera», in: *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 443. or.

(45) Ik. *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, 158. or.

(46) *Euskera* 1963-64, VIII-IX, 443-449. orr.

(47) Dena dela, euskarazko predikuaeren indarririk ezaren errurik bazuten kristau entzule euskaldunek ere, haren ustez, sarritan errazkeriagatik edo erdarazkotara jotzen zutelako, euskarazkotara joan beharrean.

- a) *Objekzioa*: Zertarako erabili euskara, entzuleek erdara jakin baldin badakite?
 –*Erantzuna*: Kristau entzule batzuk ez dakite euskara baizik, eta gainera ama-hizkuntza euskara duenarentzat sentimenduzko komunikazio-indarra darama euskarak, erdarak ez duena;
- b) *Objekzioa*: «Erlijioa zaitu ta zabaldu ezkeru bost ajola izan bear zaigu izkuntza bategaitik edo bestegaitik. Erlijioa ez da izkuntzari begira egoteko» (48).
 –*Erantzuna*: «Ez, ez da ortarako bakarrik erlijioa. Ez, ez da ortarako batez ere. Baina ortarako ere ba-da erlijioa. Erljioak izadi guztia bere balore guztiekien konsagratu egin bear du...» (49).

Erljiozko terminologia erabili zuen, hain zuzen, sarritan Agirretxek euskararen biziraupena edota garapena adierazteko; ohartzekoa da zenbat aldiz erabili ohi zituen hark «salbatu» eta «salbazio» hitzak euskarari buruz hitz egitean: «Euskera salbatu bereko balio bat bezela seriozki artzea» eskatu zien Loiolako II. Batzarrean bildutako Euskal Erljiosoei (50).

Honako neurriok proposatu zituen Euskaltzaleen Biltzarrean egindako hitzaldian (1963):

1. Eliz hizlari gehiago prestatzeko, apaizgai eta fraidegaien ikastetxeetan euskararen ikasketari bestelako hizkuntza baharrezkoenari ematen zaion leku bera ematea;
2. Hizlariak euskara «ona, ondo josia ta ikasia» erabiltzen ahalegintzea;
3. Erdaraz entzun ohi dituzten gai modernoak euskaraz ere ematea;
4. Euskal predikariei beren lana errazteko, euskarazko aldizkari berezia sortzea;
5. Kristau euskaldunen aldetik euskarazko hitzaldietara joateko «moda» sortzea;
6. Euskarazko hitzaldiak ordu egokietan ipintzea;
7. «...gaurko kultura-gai guztia euskeraz esaten lagunduko digun iztegi bat» prestatzea Euskaltzaindiak (51).

Eta honetara amaitu zuen bere hitzaldia:

...erantzunkizun txit aundia degu guk izlariok ere euskeraren bitizta ta etorkizunari buruz. Geroak juzgatuko gaitu edo txaloka edo zigorka.

(48) *Euskera*, VIII-IX, 1963-64, 447. or.

(49) *Ibid.*, 447. or.

(50) «Erljioak gaurko Euskalerriko giroan eta Elizan» (daktilografiatua, 1973, 9. or.). Izadia, gizon-emakumeak eta herriak osotasunean salbatzeak zera esan nahi du euskaldunentzat: euskara eta guzti salbatzea. «Es grave la situación de agonía del tesoro de nuestra lengua y ello nos une en una labor de conjunto para la salvación de la misma», zioen Loiolako I. Batzarrean, «Euskal pastoraltzaren berrikuntza» gaiari buruz emandako hitzaldian, horren aktetan jasota dagoenez (ez hitzez hitz).

(51) Ik. «Gaurko izlariak eta euskera», a. a., 448-449. orr.

Erlijosok eta euskara

Predikariez gain, Elizako beste sektoreei ere, bereziki irakaskuntzakoei, behin baino gehiagotan zuzendu zitzairen Agirretxe, euskararekiko eta euskaldunekiko erantzukizuna gogorarazteko bakoitzaren apostolutza-lanean. 1972ko Euskal Erlijosoen Loiolako Batzarrean alde aurretik Erlijioso Institutuen artean zabalduko galdeketa emandako erantzunaren gain egin zuen bere hitzaldi luzea «Gure Euskal Pastoraltzaren berrikuntza» tituluarekin (52). Euskararen erabilerari, Institutuz Institutukoari, buruzko erantzunen berri eman zuen (53). Ondoren, Euskal Herriko erlijioso guztiei egin zien deia, Ebanjelizazio eta Sakramentuen «pastoraltza berrituan», euskara arduraz lantera, ordura arteko horien jokabide zabarra deitoratu ondoren.

Loiolan 1972-79 urteetako Euskal Herriko Erlijosoen Batzar haien sintesia honetara dakar Agirretxek bere liburu «autobiografikoan»:

Hainbeste euskal erlijioso(a) urrutiko misio lurraldeetan gure laguntza jatorki zabalduen dauden bezalaxe, gure Herrian bertan ere horixe egin nahi dugu: Herri honi Jainkoaren Erreinuaren Berriona bere hizkuntzan eta kulturaren eman (54).

Apaizek eta erlijiosoek kristau euskaldunei Eliza zerbitzuak euskaraz eskaintzea da bata; bestea da, ordea, Euskal Herriko erlijiosoak bertako kulturaren txertatzea eta euskaraz jabetzea, eta hori beren komentuko bizitzan erabili ahal izatea: euskal inkulturazioa eta euskaldunentzat euskara bizi-hizkuntza izatea, herritarrentzako edo fededunentzako zerbitzu-hizkuntza izateaz gain. Euskal erlijiosoek beren buruak «kulturatu» eta «euskal-kulturatu» beharra aipatu zuen Euskal Erlijosoen Loiolako II. Batzarrean eman zuen hitzaldian (55). Izatez, erlijiosoentzat «inkulturazioaren» bi alderdi horiek –horien heziketa eta bizitzarena eta horien zerbitzu apostolikoarena– bata

(52) 1972ko horixe izan zen Loiolako Batzar haietan lehena. Lau atal zituen hartarako egindako galdeketak; azkenak honela zioen:

Euskalerrian gure lana egin bear dugulako eta, ortarako, gure lenengo izkuntza *Euskera* dugularik, Euskera landu t'ongi ibiltzeko, zuen artean: –zer egiten da –zer egin bear litzake.

(Batzarreko Aktak, testu polikopiatua eta argitaratu gabea, 20. or.). 32. orrialdean galderagilearen ohar jakingarria dator, galdetuen aldetik etor zitezkeen objektzioari alde aurretik erantzun nahian edo:

Guk –Euskal Erlijosok– Euskalerrian ardura aundiz begiratu bear ditugun arazo larrienen artean ez dago *euskeraren eztabaida* bakarrik. Orren mailla berean edo lenagokoa, Erri onen sinismenaren planteamentua daukagu. Orregatik, gure Erri osoaren problematika osoaren aurrean erantzundun osoak izan gaitezen, eratu ditugu emen azaldu diran galdekizunak.

Baziren gainera beste galdera bana euskararen lekuari buruz, honako gai hauen inguruan: hitzeko ebanjelizazio-ekitaldietan, elizbarrutiarekin baterako pastoraltzan, kontenplazioko mojen monastegietan... (33. or.).

(53) «Egin behar litzatekeenari» buruzko Frantziskotarren erantzunak honela zioen: – Gure ikastetxetan euskera askoz geiago erakutsi; – Gure etxetan euskerari ofizialtasuna ta bizitza eman; – Probintzi-maillan ere ofizialki euskera sartu; –Euskal-probintzia sortu dezagula eskatzen digute askok gure arteak eta kanpotik (ibid., 30. or.).

(54) *Aldi hartan...* a. l., 171. or.

(55) «Erlijosok gaurko...», a. a., 9. or. Agirretxeren artxiboan aurkitu dugu beste hitzaldi bat ere, eskuz idatzia, honako titulua daramana: «Gure liturgi otoiiza, Erlijioso komunitatean, nola euskeraz egin», inon argitaratuta ikusi ez duguna. Euskal Erlijosoen Loiolako Batzarren ondorioz 1974an (uztailaren 8-14 egunetan) Orduen Liturgiaren inguruan Oñatin antolaturiko astealdiran «Eliz-otoitza gure pastoraltzan» gaia jorratu zuen Agirretxek (ik. *Jaunaren Deia* aldizkaria,

besteari guztiz lotuta doaz, Agirretxeren iritziz, Eliz misioaren «enkarnazio-printzipio» teologikoak eskatzen duenez (56).

Gorago aipatu dugunez, mojetara sartu ohi ziren neska euskaldun-euskaldunei buruzko kezka berezia agertu zuen Agirretxek, hainbat bider horiek erdara hutsez bizitzera aldatu behar izaten baitzuten komentuan. Euskal Herriak eman ohi zituen mojen ugaria goraiatu ondoren, honela dio bere liburuan:

Baina salakuntza haundi bat ere egin beharra badago hemen: gure herrietatik erlijioso bizitzara zihoazen gazteei, emakumezkoei batez ere, euren euskaldukoa komentu gehienetan larrutu egiten zitzaien: moja sartzearekin batera, euskaldun izateari agur egin behar zitzaion (57).

Arazo horri erantzuteko sortu zuen ARAMI elkarte, gorago adierazi dugunez.

Euskal Herriko erlijioso-komunitate hainbaten benetako «kolonizazio kulturala», hizkuntzazkoa bereziki, salatu zuen, aldi berean horretarako erabili ohi zituzten arrazoiak ere salatuz, Euskal Herriko Erlijioso Institutuen Nagusi probintzialesi Loiolan egindako hitzaldi gorago aipaturikoan (1974): kolonizazio pasiboa («comunidades colonizadas») eta kolonizazio aktiboa («comunidades colonizadoras») bereizi zituen hitzaldian (58). Eta batekoentzat eta bestekoentzat inkarnazio-inkulturazio «komunitarioaren» legea aldarrikatzearekin batera (59), erlijioso-komunitate berezien eratzea proposatu zuen, beren bizitza euskaraz egin eta beren zerbitzua liturgiko-pastorala euskaraz eskainiko zutenena. –Hain zuzen ere, komunitate horietako bat eratu zuen Agirretxek berak beste fraide batzuekin Errenteriako Zamalbide auzoan, handik hiru urtera (1977)–.

Frantziskotarra izanik Eujenio Agirretxe, Euskal Herriko fraide frantziskotarren barne-bizitzaren eta apostolutzaren euskalduntzeaz kezkatu eta arduratu zen bereziki. Orduko hainbat fraide-kidek gogoratuko ditu gai horri buruzko haren eska-bideak eta arrazoiak bileretan eta idatzietan. Goian aipatua dugunez, 1979ko Frantziskotar Probintziako Kapitularako (batzar probintzialerako) gai horrixe bu-

48-49, 1974, 155-167. orr. *Orduen Liturgia* liburua euskaraz argitaratzeaz zegoela eta, antolatu zuten astealdi hori, dena euskaraz. Astealdiaren tituluaren inguruan zalantzak ageri dira. Erdaraz egindako deialdian honako titulua eman zioten:

La oración de las horas entre nosotros. Doctrina y experiencias.

Agirretxek hedabideentzat euskaraz prestaturiko testuan titulu zabalagoa eman zion lehen partean, baina zehatzagoa bigarren partean: «Eliz-otoitza gaurko Euskal Herrian».

(56) Ik. «La lengua y la cultura vasca...», a. a., 7. or.

(57) *Aldi hartan...*, a. l., 63. or. Ik. era berean, 158. or. Loiolako Batzarreko hitzaldirako galdeketa galderetako bat klausurako mojei buruzkoa zen. Erantzunak bilduz, hiruzpalau euskarari buruzkoak ageri dira: «Euskera aintzat artu dezatela», «Euskal-giroan orekuak eta kokatuak bizi ditezela», «Euskal-eziketa bat bidezko ta bearrezkoa dutela konpreniarazi», «euskaldunago izan ditezela» (Batzarreko Akta, poligrafiatua, 23. or.).

(58) «La lengua y la cultura vasca...», a. a., 4-5. orr.

(59) [La vida religiosa] ha de cotizar e impulsar *comunitariamente* [azpimarra nirea da] los valores autóctonos de cada lugar» (ibid., 7.). Gogoratzeok dira euskararen normalkuntzaren kontrako jarraera «kolonialista» zurikatzeok erabilzen bide zituzten arrazoiak, Agirretxek hemen saillean aipatzen dituenak: fraide edo mojen arteko karitatea, landu beharreko unibertsaltasuna, hezkuntzarako euskarazko baliabiderik eza, Euskal Herriaren tamaina txikia, euskal hiztunak gutxi izatea, euskaldunek beste hizkuntzak ezagutzea, eta... arazoa politizatzea. Jakina, berari gezurrezkoak edo onartezinezkoak iruditzen zaizkio arrazoi horiek, edo inkarnazio-inkulturazioaren printzipioaren izenean gaintu beharrekoak. Ez zen jarri, ordea, zuzenean arrazoiok gezurtatzen.

ruzko txostena lantzeko batzordean hartu zuen parte, bere idatzizko ekarpen eta guzti. Besteak beste, «Eskakizunak, premiak, aukerak» izeneko V. atalean, arazoa teologi aldetik argitu eta horretaz fraideak jabetu beharra nabarmendu ondoren, honako eskabidea ipini zuen 3. puntuan: «Euskerización progresiva de nuestras casas de todo Euskadi –«Euskal Herria» adierazi nahi zuen–, para llegar a un mínimo de comunicabilidad en euskera». Era berean, erlijiozko liburu euskarazkoen hutsunea betetzen ahalegintzera deitu zituen fraideak, erlijiozko literatura berria sortuz. Azkenik, fraide frantziskotarrek moja frantziskotarren hezkuntza espiritualean zuten eragina gogoratu zuen, euskalduntzearen eremura ere eragin hori zabaltzeko aukera nabarmenduz (60).

Euskara modernoa eta Euskara batua

Soziolinguistikatik begiratuta, azken batez Euskal Herri industrialean ikusten zuen euskararen salbazioaren giltza, euskal baserriari eta nekazaritzari hain atxikia eta horietaz hain arduratua –hain baserri-zalea– izan zen Eujenio Agirretxek; ikuspegi guztiz modernoa eta errealista erakutsiz alde horretatik.

«Se puede decir, pues, que en los medios industrializados se decide el porvenir de nuestra lengua, así como también en ellos se decide la vitalidad o desaparición de nuestra Religión, de nuestro folklore, etc.» (61).

Horregatik euskararen modernizazioa eskatzen zuen, gaurko mundu industrialaren hizkuntza izan zedin.

Industri munduari begira, hain zuzen, eta euskararen salbazioa bere esku hartuko zuten botere politiko-estatalik ezean, eta hori etorri bitartean, bestelako neurri linguistiko eta sozialak proposatu zituen bere 1960ko aipaturiko Frantziskotarren Arantzazuko Kongresuko hitzaldian, bost puntutako plangintza moduan:

- a) Hiztegi modernoa lantzea, industri munduaren adierazpen premiei erantzungo diena (62);
- b) Beren hizkuntza «arkaikoari» biziraupena segurtatu eta mundu industrialerako egokitu duten Herrien esperientziak ezagutzea;
- c) Euskara ikasteko eskola eta akademiak zabaltzea;

(60) Puntu hau 1976ko Kapitulu probintzialak aipatua zuen nolabait bere Konklusioetan, 11. zenb. Dena dela, moja-komunitate euskaldunei gogo-jardunak, hitzaldiak, etab. euskaraz eskaintzeari buruz ziharduen konklusioak; Agirretxeren eskabidea haratago zihoan: euskarari buruz mojak mentalitzatzeko eta horiek euskalduntzeko erantzukizuna eta euskal inkulturazio-eginkizuna mahai gainean ipiniz fraideentzako.

(61) *Cantabria Franciscana*, 16, 1961, 294. or. Hainbat harrigarriagoa da hori, Kongresu berean bestelako ikuspegiak ere nabarmendu baitzen, batez ere Zelestino Zabalaren hitzaldian.

(62) Hain zuzen ere euskararen modernizazioari begira, irekia ageri zen Agirretxe urruneko 1956an bertan, erdaratik terminologia berriari buruz, garbizale itxien aurka:

Nik alde batetik ikusten det oso bearrezkoa duala euskerak kanpoko izkuntzetatik itzak artzea, euskeratuta artzea. Beste aldetik ez det ikusten eragozpenik euskerak nai baldin balitu itz berriak sortu Euskatzandiaren baimenarekin eta oiek jator izateko biderik baldin badute itz berri oriek ere artzeko (*Euskera*, 1, 1956, 250. or.)

- d) Urteroko euskararen eguna antolatzea, euskarazko kultur edukia izango duena;
- e) Herri industrializatuetakoko euskarazko elizkizunen berri zehatza zabaltzea jendearentzat.

Dena dela, herri-hizkerari eta herri-euskarari atxikia zen Agirretxe. Euskara batuaren prozesuaren inguruko bere zalantzak eta guzti, ez zen inoiz Euskaltzaindiaren aurauen aurka jarri, eta horren premia onartu eta defenditu egin zuen, kontra zeuden Euskerazaintzakoen aurrean ere; baina, bestalde, euskara herritarra eta erraza erabili beharra eta euskalkiak zaindu eta erabili beharra nabarmendu zuen, euskararen beraren biziraupenerako. 1973an Loiolan zenbait idazlek egindako bileran honako irizpideak eman zituen Iñaki Goikoetxeak euskalkien eta euskara batuaren erabilerari buruz: batetik, euskal idazleek bakoitzak bere euskalkia ondo ikastea, bai eta ingurukoak ere, bileretan eta elkar ulertzeko, eta euskalki bakoitzekoei «irakurgaiak» beren euskalkian eskaintzea; eta, bestetik, gaurko zientziak eta kultura jasoak adierazteko euskara batua erabiltzea. Agirretxek ontzat eman zituen irizpide horiek, bilerari buruz idatzitako artikuluan (63); baina zera gaineratu zuen:

...Oraingoz horrela jokatu behar dugula, hots egin zuen Aita Iñaki Goikoetxeak.

Oso aintzat hartu zuen nonbait «oraingoz» hori; eta berak 1965-1975 urteetan gipuzkeraz idatzitako artikuluen bilduma euskara batura aldatuta eman zuen 1998an gorago aipaturiko *Baserriko Leihotik* liburuan.

Konklusioa

Berriro Eujenio Agirretxe gizon eta hizlariagana itzuliz, haren heriotzakoan neonek idatzitako oroitzapen-artikuluko paragrafo pare bat ekartzea zilegi bekit hemen, hark bere bizitzan irekitako bidetik egin dugun osteratxo hau amaitze aldera:

Kezkatan kezkatua bizi zen etengabe Agirretxe; fraideen artean, lagunengan, Elizan, gizartean, Euskal Herrian, munduan kezagarri zen edozerk kezkatzen zuen bera barru-barrutik, eta arduraz hartzen zituen denak. Kezka horiek jaulki ohi zituen bere hitzaldi eta idatzietan eta ardura horiei irtenbidea ematen saiatu ohi zen ekimen berriekin beti.

Eta baieztapen horrek euskarari eta euskal kulturari buruz ere balio du.

Hitzeko gizona zen Eujenio, leialtasunean leiala. Eta hitzaren gizona zen, hitzaren be-rezko indarrari indar berria jartzen zekien hizlaria, mintzatzean nahiz idaztean. Eman nahi zuen mezuaren indarrean sinesten zuen; eta trebea zen, bere hitzaren indar beroarekin sin-esgarriagoa egiten, zabaldu eta entzuleengan sartu nahi zuen mezua.

Euskal hitza zabaldu zuen bizitza osoan Eujenio Agirretxek, Jainkoaren Hitza predikatzearekin batera.

Donostia, 2005-I-27

Paulo Agirrebaltzategi

(63) Ik. «Bizirik jarraitzeko bideak», in: *Baserriko Leihotik*, a. 1., 150-151. orr. Berak idatzi, gipuzkeraz eta hizkera xamurrez idatzi ohi zituen bere lanak *Goiz-Argi* aldizkarian herri «xe-hearentzat»; euskara batuak bidea egin ahala, ordea, «herri xehea» ere horretara hurbiltzeko moduan edo hurbildua ikusi zuen, dirudienez.